

2023KO ONDARROAKO JAIAK

Andra maixak



ABUZTUAREN 11tik 17ra



Ondarroako Udalaren eta Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZaren publikazio berezia

AZALA → Eneritz Flores Ibazeta
ARGAZKIAK → Artelan • Aurrera KE
 • Dantzarte • Euskal Pentatloia • LaSala • Lore Bengoetxea • Mikel Santiso • Iratze Urkiza • Ondarroako Kirolaren Leihoa • HITZA • Ondarroako Udala

TESTUAK

• Mikel Santiso Urkiza (11 barri)
 • Ondarroako Udala • Ondarroako Jai Batzordearen arduradunak • Berdintasun Saila-Etxelila

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

→ Nekane Akarregi (11 barri)

PUBLIZITATEA

→ Maribi Fernandez (Hitzza)



ANDRAMAIXAK'2023 • ONDARROA



euskaraz
bizirik
nahi dut



ONDARRUTARROK, AGURI!



Alkatearen agurra →

Udaletxea ailla eta Leokadi diarrotsin...

«Banatorrelaaaaa!».

Bihar asko euki arren eskuartin, gogotsu Leokadiaz batea kalez-kale ibiltzeko. Plazagaineko atun erri, parrandi, txosnako txandi, marmitxako lehiaketi, kuadrilla egune, tanborradi... bada zereine eta nun parte hartu. Batzuk nahi ixan arren, aurtan be ezin-go dabe Andrama-xetan egon, *«falta douzenak gogun hartute kalin barrena»* ibiliko gaz...

Bakotzak beran era, baine ibili gatxin beti be

bestinganako errespetuaz. Batzuk jaxe eitteko beste batzuk biharra ein bir dabelako, beste batzuk deskantsu nahiko dabelako... Ez dou ixelako eraso matxistaik onartuko, nahiku de! Ez eifñ erasoik, eta ez ixan konplize! Jaxak eta kalik, emakumionak* be badiz. Aske matxe eta aske bixitxeko Ondarru nahi dou, eta horretako ahalegin guzti eitten jarraitxuko dou Andramaxetan be. Eraso matxistan kontrako herri protokolu martxan egon-go da.

Jaxak ixan arren, hondakinak dagokixen ontzi-

xeta, zaindu inguru eta ingurukuk.

Amaitzeko, jaxak eta herrixte bixik mantentzen dozuen alkarte eta herri-txar guztioi, eskerrik asko! Jaxan atzin herritxar askoren bihar bolondresa da, horrek baik, ezingo genduke Andramairik euki.

Besarkada handi-handi bat herritxar guztioi!

**Bixi topea
andramaxak!
GORA Ondarru
eta ondarrutarrak!**

**Urtza
Alkorta Arrizabalaga
Ondarroako alkatea**



INFORMAZIO GUZTIA



www.udalbarriak.eus

ONDO ETORRI ANDRAMAIXAK!

Jai Batzordearen arduradunen agurra →

ZER DIZ
HERRIKO
JAIXAK?

Jaixak, herriko jaiak. Gehixenok, zer edo zertako dizen jaiak galdetu ezkeo, ondo pasateko egunak dizela erantzungo genduke seguruena.

BaÑe jaiak, herriko jaiak, zeoze gehixa dizela esan biharra da.

Senidikin edota lagunakin batzeko egunak diz. Herritxik kanpun bixi dizenak herrimiñe asetzeko modu, herrire bueltatuz jai giru bixitzeko. Herriko kulturin, zentzu zabalenin hartute, eskeintzi ikusteko, parte hartzeko eta gozatzeko aukeri.

Herriko talde eta eragillin

zeregiñe eta eskeintzin agertokixe. Jaixetan ondo pasati aitxaki lez hartute, normalin ezin edo ez genduken gauzak etxeko sasoi. Gaztetxuk, lagunakin, eta gurasun zuzeneko kontrolik baik, lehengoko bidar bakarrik urteteko egunak be ixaten di. Taberna eta jatetxintzat biharra ixte etenik baik etxeko egunak. Ere mu eta arlo asko beteten daben ekimen soziala diz jaiak...

Jaixak, herriko jaiak, herri baten nortasun adierazpidi di. Herritxarrak norberan herrixaz bat etxeko aukeri eskeintzen daben egunak.

Jaixak ritu eremu be hartzen dabe. Herri bateko ohitxuretan uztartute daz jaxak. Jaixetako egitarau oinarritzko ekintzak, urtez-urte, ordu eta egun berberetan etxen di. Halandabe, jaixetako egitarau aldatzen juten da eta bixi gazen denboreta egokitzen da.

Antxiñe, egitarau gitxiene ixaten zan eta txistu eta danboliñan doiñuk nahiku zin jai giro bixixe sortzeko herriko kalitan'tzir. Gaur egun herritxarrak antolaten dan egitarau in dartsu eta anitzan eskein-





tzi eskatzen dabe. Herriko eragille desberdiñak eta Udalak eskaera horrei erantzuten ahalegintzen ga. Liburutxo honetan agertzen dizen hainbat eta hainbat ekintza horren adierazle di. Lortzen badan edo ez, zeuk esangozu. Beti be esan bir de Jai Batzordi beti dala iraitxe zeuk, herritar guztik, parte hartzeko zeure ideak edota proposamenak dannon artin bideratzeko.

Jaixetan be, geure alde illune eta gaiztu be agertzen da. Eraso matxistak, homofobuk edota transfobikuk, taberna eta txosna giroko lis-karrak,

geure alde zikiñena hondakiñakin... Horren aurrin ERRESPECTU aldarrikatzen dou. Errespetu herritarrai eta herrixai, danon eskun dalako jaixak giro onin bixitxi.

Eta amaitzeko, gogun ixan danok ondo pasateko beste batzuk biharra etxen ibiltxen dizela. Gogun ixan arrazoi desberdiñak'atxik gure artin ezin dizenak eon.

Herritar guztioi eskatzetsuau, bakotxak ahal daben edo nahi daben neurrixan, herriko jaixakin gozateko, bakotxak beran era. Ondo pasa jaxetan!!!

**Gora Ondarru!
Gora Andramaixak!**

**Ion Iñaki Artetxe Egaña
eta Aritza Aristondo
Natxiondo,
JaiBatzordeko arduradunak.**





ERASO MATXISTEN ARRETA ZERBITZUA

ANDRA MARI JAIETAN: 20:00-08:00

ERASO BAT JASAN EDO
IKUSTEN BADUZU
JO ARRETA ZERBITZURA:
DEITU EDO HURRERATU!



TELEFONUZ
WHATSAPPEZ

688 772 772



AURREZ
AURRE

ETXELILA
(Artibai 3)

Emakumeen Kontseilua →

Jaietan eraso matxistei aurre egiteko

Aurtengo Andramarietan ere, Emakumeen Kontseiluak eta Berdintasun sailak elkarlanean eraso matxisten arretarako zerbitzua jarriko dute martxan.

Zerbitzu honen bidez, herriko jaietan ematen diren edozein intentsitateko eraso matxisten berri izatea da helburua.

Alde batetik, eraso bat jasan duenari laguntza, aholkularitza eta akonpaimendua eskainiko zaio. Aurrez aurreko

zerbitzua Etxelilan eman go da zuzenean; nahiago duenak telefonoz dei dezake.

Bestetik, eraso matxisten lekuko direnak ere telefonora deitzera animatu nahi dituzte antolatzaileek. Izan ere, eraso matxistak ekiditeko bidean,

haiek identifikatzeko eta salatzeko dagoen zailtasunetan eragin nahi da. Arreta zerbitzua, besteak beste, indarkeria ka-

**ERASO
MATXISTAREN
BAT JASAN EDO
IKUSTEN BADUZU,
DEITU:
688 772 772
DEITU!**



Txosnak eta zenbait taberna bidelagun izan ditugu eraso matxistei aurre egiteko protokoloa osatzen. Honako hauek eraso matxistarik gabeko jaien aldeko konpromiso aktiboa hartu dute:

- Danak Etxea!
- Kresala Kultur Elk.
- Plazagañi
- Txosna Batzordea
- Anaitasuna
- Arrantzale
- Alai
- Beikozini
- Boga-Boga
- Idoia
- Noya
- Sokoa
- Txanpa

«Bete ditzagun jaiak denontzako plazerrez eta gozamenaz; egin dezagun Ondarru eraso sexistarik gabeko gune!»

suen berri izateko, erregistratzeko eta ikusgarri egiteko zerbitzua ere bada; horrela, herritarrak indarkeria matxistaz kontzientziatu eta jaien testuinguruan ematen den errealitatea ahalik eta osatuen jasotzeko. Eraso bat jasan edo ikusten baduzu, jo arreta zerbitzura: ETORRI edo DEITU! 688 772 772 ●



Eneritz Flores Ibazeta •

2023ko andramarietako kartelaren egilea

«Kartela eskuz egiteak pertsonalitatea eman dio»

Zelan izan duzu halako kartela egiteko ideia?

Idea asko izan nituen. Baina azkenean herriko ohituretan enfokatu nintzen. Bizi guztian ikusi ditugu erraldoiak, kalejira... hortik etorri zen ideia. Hasieran bi erraldoi egitea pentsatu nuen, baina gero erabaki nuen biak pertsonaia bakar batean egitea. Osagai gisa arraun bi sartu nituen, arrauna ere gure kulturaren parte delako.

Lehenengo ideiatik

aldatzen joan den prozesua izan da, ezta?

Hasieran kollage bat egitekotan nintzen, baina ez nengoen seguru. Teknika desberdinak neuzkan buruan, baina zerbait lineala neukan buruan. Beste izaera bat ematen dio kartelari.

Eskuz egindako kartela da, geroz eta gutxiago ikusten dena?

Gaur egun teknologia-ren bitartez ia edozer eta perfektuki egin daiteke, baina ni beti izan naiz eskuz egitearen aldekoa. Uste dut ezin

dela hori galdu, hori baita pertsonalitatea ematen diona.

Berriro aurkezteko asmorik?

Nik uste baietz. Asko gustatzen zait halakoak egitea eta bigarren aldiz aurkeztu naiz aurten. Ilusio handia egin dit eta jarraituko dut.

Jaietako zein une ditzuzu gogokoen?

Leokadiren jaitsiera eta igoera, baina batez ere jaitsiera, igoerak jaiak amaitzen direla esan nahi baitu. Erraldoiak musikarekin kalejiran ere ederrak dira, eta ez nuke hutsik egingo su artifizialetera, Poleneko mantekauaz...

Zer hobetuko zenuke Andramarietan?

Bi gauza ditut buruan. Lehenengoa, eta ez Andramarietan bakarrik, urte guztian baizik: emakumeontzat espazio seguruak izatea kalean beldurrik gabe ibili ahal izateko ordua edozein dela ere. Indarkeria matxistarekin amaitu behar dugu. Bestetik, garbitasuna. Batez ere festan dabiltzanek kalean uzten dituzten zikin-keri eta hondakinena: botilak, edalontziak, zikinak... ez da inor etorri behar garbitzera, gu izan behar gara garbiagoak. Beti dago eskura zamarpotoren bat, eta ez da ezer kostatzen lurrean utzi beharrean bertara botatzea. ●



Mende erdiz, BOGA!

Urteurrenak beti dira bereziak, baina zer esanik ez mende erdi betetzen direnean. 50 urte betetzen ari da aurten Ondarroa Arraun Elkarteak.

Kirol talde guztien moduan garai zailak eta hobeak bizi izan ditu Arraun Elkarteak, baina une gozoan da orain: harrobi sendoarekin, herrian errotuta eta erreferenteak diren traineru nagusi biak maila onetan lehia-tuz. 145 arraunlarik osatzen dute elkarteak, eta horietatik 75 dira emakumeak. «Elkar-te indartsua izateaz gain, zaletu gehien mugitzen duen taldeetako bat ere bagara, eta ederra da hori», aitortu du Koldo Azpiazu presidentek.

Balorazioak egitean azken hatsarekin geratzea izaten da ohikoena, baina nondik datozen argi dauka Azpiazuk: «1983. urtean atera zen lehen aldiz trainerua, eta 1992ra arte oso intermitentea izan zen. 1993an lortu zen lehen bandera traine-

ruarekin». Orain pentsaezina den egoera ere bizi izan zuen klubak 1998an, trainerurik ezin izan baitzen atera. Baina itsasoan moduan, ekaitzaren ostean badator barea, eta eguzkiak ere irretzen du. Horrela iritsi ziren 2009ko KAE2rako jaitsieraren ondorengo gorakadak ere: 2011n KAE1era igoera, 2016an TKE Ligara ia bandera guztiak irabazita, 2019an Kontxarako sarrera eta iaz etxeko bandera. «2019an Kontxan bizitakoa daukat gogoan. Herria ikusi nuen han. Desberdintasunak dituzten herritarrak elkar baskar-tuta».

Arraun Ondarru

Mende erdiko ibilbide hori borobiltzeko, eta izandakoa eta daudenak aintzat hartuz, arrauna eta arraun elkarteak nondik datozen erakusteko, Arraun Ondarru proiektua sortu dute: *Arraun Ondarru. Ogibidetik kirolera*.

Hiru atalez osatutako proiektua izango da: artxibo

131 bandera ditu guztira Ondarroa Arraun Elkarteak bere maila guztietan, «herriarenak diren banderak»

on bat egitea, erakusketa handi bat antolatzea eta ikusentzunezko bat. Urte amaierarako prest egotea da aurreikuspena. «Erakusketan ez dugu nahi bakarrik arraun elkartearen kirol arloa erakutsi; ez da izango erakusketa soil bat. Arrauna nondik datorren erakutsi nahi dugu, arrantzaleen ogibidetik datorren kirola dela erakutsi eta hori ulertarazi».

Arraun Elkarteak herri bat berarekin mugitzea lortu du, kolore gorria sentitzea. Eta hori, bertako arraunlari, zuzendaritzako kide, laguntzaile, babesle eta abarri esker lortu da. Ixilpeko lanari esker. Musutruk orduak eta orduak sartzeari esker. Bai oraingoek eta bai aurretikegondakoek.

Beste 50 urtez, Arraun Ondarru! **Ru Ru Ru!** ●



Jaietako gutziak



La jai guztiek izaten dute euren jaki berezia, eta Andra Mari jaiak ere ez diragutxia-go. Denok daukagu jakiren bat Ondarroako jaietan hutsik egiten ez duena: marmitakoa, atun errea edo sardina erreak, Poleneko mantekau... Edo jaiak hasi baino lehen Itsasurreko baserri azokara egiten dugun osteratxoa inguruko ekoizleen produktuak erosteko.

Gure izatearen parte diren jakiak dira, eta bakoitzak bere ohiturak ditu, baina zein garrantzitsuak diren guztiak gure herriaren nortasuna ezagutzeko. Azokak ekartzen digun jai giroan murgiltzea, Plazagainetik datorren usaina, Kuadrilla Egunean Alamedan egoten den giroa edo Ate Berdeko iladak gure altxorek duten balioaren erakusle dira. Eutsi horri! ●





Danak Etxea! •

Elkartasunaren bueltan batzeko elkargunea, Kafeko Atzea

Azken urteen artean gune berezirik sortu bada Andra Mari jaien inguruan, hori Kafeko Atzea da. Danak Etxea! elkarteak eremu horretan gune berri bat ipintzea erabaki zuenetik urtez-urte hazten doan jaigunea da. Elkartasun gunea da Kafeko Atzea, baina elkartasun gune izateetik elkargune izatera ere iritsi da. Ume, gazte, heldu eta nagusien topalekua da. «Jai eremu gutxitan ikusten dira espazio bera elkarbanatzen hain adin desberdinetako herritarrak. Hemen, gazteak, ume eta gurasoak

zeinadineko jendea elkartzen da egunero, eta ederra da hori».

Diotenez, oholtza da giro hori sortzeko gakoa. Amnistia Eguneetik hasi eta Arrantzale Eguneraino, iluntzetan, beti dago erromeria, eta hori atsegin dute ondarrutarrek.

Olatua handitzen

Aurten, abuztuaren 12a zapatua izanda, zabaldu egingo da Kafeko Atzeko elkartasun gunea, giroa berotzeko. Oholtzan erromeria, behean festa eta bietan aldarrikapena. Horixe da Kafeko Atzeko elkartasun gunearen arima. Gazte Egunean hartuko

«Abuztuaren 12a zapatua dela eta, orduan zabalduko dugu gunea»

du bakarrik atsedene gunea andramari guztietan.

Baina betiko moduan, jai giroa bermatzeko lanerako taldeak ere handitu egin behar dira. Hori dela eta, herritarren eta kuadrilen laguntza eskatu dute txandak egiteko, bai edarien txosnan eta baita sukaldean ere. Laguntzeko prest daudenak Danak Etxea!ko kideengana hurbiltzea baino besterik ez dute. Laguntza oro hartuko dute esku zabalik. ●

↓ Andramaixan aurretik...

abuztuak 5, zapatua

• **10:00-15:00.**

Itsasurre Plazan,
NEKAZARITZA AZOKA.
Ant.: Lea Artibaiko Landa
Garapenerako Elkarteak.
Lag.: Ondarroako Udala.

• **11:00.** Badian, TRAI-
RUEN ESTROPADAK
KAE2 LIGA: XXXIX.
Ondarroako Bandera -
Goimek Sari Nagusia. Ant.:
Ondarroa Arraun Elkarteak.
Lag.: Ondarroako Udala.

• **12:00.** Badian, TRAI-
RUEN ESTROPADAK
ETE LIGA: XXXIX.
Ondarroako Bandera -
Ondarroako Udala Sari
Nagusia. Ant.: Ondarroa
Arraun Elkarteak. Lag.:
Ondarroako Udala.

• **Salgai daude**
Amnistia Eguneko
elkartasun bazkari-
rako txartelak Alai
eta Anaitasuna
tabernetan.



abuztuak 6, domeka

• **12:00.** Alamedatik,
ELKARTASUNA
HONDARTZETARAINO
Etixeraten eskutik.

abuztuak 8, martitzena

• **GAUR DA AZKEN**
EGUNA KUADRILLA
EGUNEKO BAZKARIRAKO
TXARTELA erosteko.

5 eurotan salgai,
Turismo Bulegoan.
Bazkaria Kafeko atzean
izango da hilaren 16an
15:00etan.

• **16:00.**
Arrigorri hondartzan,
HONDARTZAKO BOLEI
TXAPELKETA.
- **2vs2 neskak** (sarearen
altuera 2,24 m., **bakarrik**
neskak)
- **2vs2 absolutoa** (sarearen
altuera 2,43m., **neskak eta**
mutilak).



Apuntatzeko: Abuztuaren
6ra arte: **618 3778 91.**
Tripirapu Boleibol
Taldearen eskutik.
Ondarroako Udala.

abuztuak 8, 9, 10 eta 11

• **19:00.** Kofradia
Zaharreko 3. pisuan,
TANBORRADARAKO
IZEN-EMOTEA ETA
ENTSATIOAK. Inor danbo-
rrik barik gelditu barik
derrigorrezkoa da izena
emotea. Kresala Kultur
Elkarteak.

ONDARRUN,

Billurak guaz jai!



ERASO MATXISTEN ARRETA ZERBITZUA

ANDRA MARI JALETAN: 20:00-08:00

ERASO BAT JASAN EDO IKUSTEN BADUZU JO ARRETA ZERBITZURA: DEITU EDO HURRERATU!



TELEFONUZ WHATSAPPEZ

688 772 772



AURREZ AURRE

ETXELILA (Artibal 3)



Bihurtu daigun HERRI OSU ERASO MATXISTAIAK BAIKO guni!

ETXEAKO BIDIN, EZTOU NAHI BALIENTIK IXAN LIBRIK BAIÑO!

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA

Identifikatzeko bilatu txosna zein tabernetan honako irudi hau →



ERASO MATXISTARIK GABEKO GUNEA

Indarkeria matxistaren aurrean zure jarrera aktiboa adierazteko eta autodefentsa feministaren aholkularitza.

Abuztuak 13, MUSIKA PLAZAN
Abuztuak 16, ALDE ZAHARREAN
(19:00etatik 22:00etara)

Eraso sexistan kontra bazaz, jaixetan be adierazixun!

ABUZTUN 11ko ELKARRETARATZIN PARTE HARTUXUN!

Abuztuak 11, barikua, ALAMEDAN, 19:30ean
Andrabanda Feministarekin.
ZAPIEN BANAKETA EGINGO DA



GANORAZKO LIGOTEUAN ALDE.

Gora aniztasun sexuala!!!

Gora ligoteo sanu!


BAIETZA EZ TAN BITXARTIN, EZETZA RA

GORA LIGOTEO SANU!

ETA AKORDA:

- Erropak ez diz berez-berez garbitzen.
- Jateku mahajagañea beran bostin ezta allaten.
- Ardurak ta zaintza biharrak banatu ezkeo, jaixetan danok gozatzeko aukeri eukikou.

ARDURAK BANATU EZKEO, JAIXAK DANOK GOZATU!.





→ abuztuak 11,
barikua
*Santa Klara
Eguna*

**JUBILATUEN
EGUNA**

• 19:00.

Antiguako Ama egoitzan,
LUNTXA, EGOITZAKO
JUBILATUENTZAT.

Ondoren,

Antiguako Ama egoitzan,
DANTZALDIA
JUBILATUENTZAT
Trio Amigos del Swing
taldearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• 19:30.

Alamedan, INDARKERIA
MATXISTARIK GABEKO
JAIEN ALDEKO
ELKARRETARATZEA
ANDRABANDA
FEMINISTAREKIN.
Ondarroako Emakumeen
Udal Berdintasun
Kontseilua.

SEGURTASUN NEURRIAK

OHARRAK>>>

SU ARTIFIZIALAK

- Segurtasun eremuko zona mugatua errespetatu.
- Larrialdi zerbitzuetako ibilgailuei biderik ez zotpatu.
- Udaltzaingoaren mezuak jarraitu.
 - Gaizki sentituz gero (mareoak eta abar), Kalatraba zubiko Gurutze Gorriko postura etorri.
- Ikuskizunean begietan errautsa sartuz gero, urarekin garbitu, baina ez igurtzi begirik.
- Ahal den neurrian ez ekarri txakurrik ikuskizunera, entzumen oso sentikorra dute eta.
 - Suak amaitutakoan, ez ikutu esplotatu gabeko su artifizialik. Horrelakorik ikusiz gero, deitu udaltzainei berehala.

ZEZENSUZKOA

- Ikuskizunean parte hartzeraz bazoaz, arropa egokiekin babestuta hurreratu zezenarengana. Ez bazoaz parte hartzeraz, ibilbidetik urrundu mesedez.
- Ume txikiei ez laga hurreratzeko.



Gurasoen BAIMENA ↓

ADIN TXIKIKOEN GURASOENTZAKO OHAR GARRANTZITSUA

Zure semeak edo alabak KUKAÑAN edo/eta ZEZENSUZKOAN parte hartu nahi badu, baimena sinatu behar duzu. Hala ez baduzu egiten, zure semeak edo alabak ezin izango du parte hartu. Baimen baka-rrekin nahikoa izango da bietan parte hartzeko. Hona hemen ereduak:

Nik _____

[izena eta bi abizen] _____

EHNA/NAN zenbakia dudan honek, nire semea/alaba den _____ [r]i

aurtengo Andramari jaietan ospatuko diren ekintzetan parte hartzeko baimena ematen diot.

Eta hala egiaztatzeko sinatzen dut,

Ondarroan, 2023ko abuztuaren ____ [e]an,

Sinadura:

_____ [bete datuak, ebaki eta eroan antolatzaileei]



Egitaraua →

abuztuak 12, zapatua Txintxirrika Eguna



• **10:30-14:00.**

Alamedan, AURRERA
K.E.ren DENDA ETA
BAZKIDE TXARTELEN
BANAKETA. Bazkide egiteko
aukera ere egongo da.

• **15:30.**

Zubi Zaharraren aurrean,
UMEENTZAKO KUKAÑA.
Ondarroako Udala.

• **17:00.**

Latxanbre Plazan,
BURUHANDIEKIN JOLASEAN
Artelanen eskutik. Ondarroako Udala.

• **17:30.**

Latxanbre Plazan,
UMEENTZAKO TXOKOLATADA
Artelanen eskutik. Ondarroako Udala.

• **18:45.**

Alamedan, HAUR IKUSKIZUNA:
GORA BIHOTZAK, Eidaberen
eskutik. Ondarroako Udala.

• **Arratsaldean.**

Udal frontoian, ONDARROAKO
PALA TXAPELKETAREN FINALAK.
Ondarroako Udala.

• **19:00.**

Kafeko atzean, GAUR TXOSNA
ZABALIK! Danak etxea!

• **20:00.**

Kafeko atzean, ERROMERIA:
SUKAR. Danak Etxea!

• **22:00.**

Itsasaurren, KONTZERTUAK:
KADIRA, LATIN VIBES eta MUARE.
Txilixokaren eskutik.
Ondarroako Udala.



Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga •

Andra Mari jaiak alkate izan gabe

«Leokadiren jaitsierak eta herriko banderak irabaztea izan dira une berezienak»

Zelakoak izango dira aurtengo jaiak zuretzat?

Desberdinak izango dira. Alkatea moduan ez baina antolaketa lanetan ariko naiz aurten ere: danborrada, Leokadi, turnoak txosnetan eta Plazagainen... parte hartzen eta familia eta lagunekin gozatzen.

Zein izango da alde nabarmenena jaiak alkate moduan bizi zenituenetik?

Ardurari dagokionez egongo da alderik handiena, beste modu batera biziko ditut Andramariak.

Zerbait gertatzeko ardura, eguneroko kezka... Bestela lehen modura pasatuko ditut, parte hartzen eta laguntzen, jai herrikoiak izan daitezten.

Zein da edo zeintzuk dira zure une gogokoenak andramarietan?

Leokadiren jaitsierako unea oso berezia izaten da, plaza beteta, denok batera jai giroan.... Azken urteetan gainera agurra botatzeko ardura ere izan dut, eta oso une berezia izaten zen niretzat. Gainera, urtero omendu bat izateak oso

hunkigarri bilakatzen du une hori.

Alkate izan zaren urteetan, zein izan da jaietako une bereziena?

Momentu oso berezi bi aipatuko nituzke, alkate moduan bizi izan ditudanak eta herriarentzat ere oso esanguratsuak: Arraun Elkarteak herrian irabazitako bi banderak, 2016koa eta iazkoa, zein baino zein bereziagoak eta politagoak herriarentzat.

Zein da aurtengo zure plana jaietarako?

Antzerako plana izango dut jaietarako. Aldatuko den gauza bakarra ordezkaritzaaren ardura izango da. Alkate nintzeanean ere herrigintzan berdin-berdin jarraitu nuen eta orain ere horretan jarraituko dut. Jaietarako prestaketa askoz aurretik hasi dugu aurten ere, uztailearen 15eko Plazagaineko barruko muntaiarekin. Alkate nintzeanean moduan jarraituko dut Leokadirekin, danborradarekin, txosnetako eta Plazagaineko txandekin, senide eta lagunekin bazkaltzen... Jaietan denok ematen badugu zerbait jai ederrak biziko ditugu, herritar aktiboak izatea da gure bidea. Parte hartzera animatu nahi nituzke herritarrak, esku bat botaz ere ondo pasatzen delako jaietan.



abuztuak 13, domeka

Gazte Eguna



- **11:30.**
Gaztetxean, KAMISE-TA SALMENTA.
Antolatzailea: OGA
- **12:00.**
Kortxeletik Gaztetxera, TURUBIREN JAITSIERA. **Ostean,** KARROPOTEOA.
Antolatzailea: OGA
- **14:30.**
GAZTE BAZKARIA.
Antolatzailea: OGA
- **16:30.**
Herrian zehar, GAZTE JOKOAK.
Ondarroako gazteak.
- **17:00-18:30**
Jai inklusiboak lortzeko, tiobiboetan ez da musikaririk egongo, zaratarekin hipersentsibiltatea dutenek ere gozatzeko.
- **18:00.**
Zaldupe Udal Futbol Zelaian, XLV. ANDRAMARI SARIA. Aurrera KE - Mutriku FT.
- **18:00.**
ELEKTROTXARAN-GA, Alamedatik. Musika Plazako txosnak.
- **19:00.**
Musika Plazan, TXOSNA IREKIERA.
- **19:00-22:00.**
Musika Plazan, INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA.
Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseilua.
- **22:00.**
Ibaiondotik hasita eta kalerik kale, TANBORRADA Kresala Kultur Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.
- **22:00.**
Musika Plazan, KONTZERTUA: MATE. Musika Plazako txosnak.
- **23:15.**
Musika Plazan, KONTZERTUAK: UME OKERRAK eta LUKIEK.
Ondarroako Udala.



ARTELAN (2010)



IBILDIKO BIDEOKLIPA (2022)



ERDI AROKO JAIAN (2022)



BITXOREREN OMENALDIAN (2014)

Inma Laka da aurtengo omendua: sortzailea, kulturgilea, historiazalea...

Omenaldi asko dago eneko gurekin ez daudenei egiten zaie, beraiek egindakoak balio gehigarri bat orduan hartuko balu bezala. Baina oraingo honetan uste dugu badaukagula zer eskertu, zein omendu eta bera ere une berezi honen parte izatea merezita duen arrazoiengatik.

Inma Laka Guenaga da bera. Emakumea. Emakume aurrerakoaia, ekina, gartsua... Artelaneko eta Ondarroako Historia Zaleak elkarteko kide, Zubi Zahar Herri ikastolaren sortzaile-etako bat, ongizate elkarten sustatzaile, besteak bes-

te, herrian dagoen edozein ekintza kulturaletan ikusiko dugu.

Bitxore Laka maitatuarekin batera makina bat isilpeko lan, lan boluntarioa, hori da herrigintza, eta herrigintza da Inma. Zenbat ordu eta zenbat kezka. Buruhandiak, akelarrea, hango eta hemengo datuak biltzen urtekarirako... beti isilean eta irribarre batekin.

Guzti honengatik erabaki du udal gobernua Inma Laka omentzea, herrigintzan ixilpean lanean ari diren emakume guztiak airtutz.

Eskerrik asko herria egiteagatik, Biba Zu, Inma, eta Gora Ondarruko Ardrak! ○



ANTXOA EGUNEAN (2018)



OHZ KIDEAK (2018)

abuztuak 14, astelehena

Amnistia Eguna



• **10:30.**

HERRIKO
TXISTULARIEN
KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• **11:00-15:00.**

Musika Plazan,
MAMARRAZOKI
Artisau Azoka.
Musika Plazako
txosnak.

• **13:00.**

Alde Zaharretik
Alamedara,
MANIFESTAZIOA:
«Askatasuna!»
lelopean. Sortu.
Ostean
Kafeko atzean,
ELKARTASUN
BRINDISE.

• **14:30.**

HERRI BAZKARIA,
Plazagañin. Txartelak,
Anaitasuna eta Alai
tabernetan.

• **17:00-18:30**

Jai inklusiboak lortzeko,
tiobiboetan ez da musika-
karik egongo, zaratare-
kin hipersentsibilitatea
dutenek ere gozatzeko.

• **18:00.**

Musika Plazan,
MEIXENDI + SHOWE
(herriko artistan
eskutik). 16 urtetik
gorakoentzat. Musika
Plazako txosnak.

• **18:45.**

Antiguan, SALBEA.

• **19:00-23:00.**

Kafeko atzean,
ERROMERIA:
LUHARTZ.
Ondarroako Udala.

• **20:00.**

Zaldupeko zubi
paretik hasi eta kalerik
kale, FALCONS DE
VILLAFRANCA
taldea.
Ondarroako Udala.

• **00:00.**

Musika Plazan,
KORTXELEKO
MAMUEN JAITSIERA
eta IKURRINAREN
IGOERA. **Aurretik,**
Kresalako Bandarekin
KALEJIRA; **ostean,**
KORTXELEKO
MAMUEKIN KALEJI-
RA. Ondarroako Udala.

• **00:30-02:30.**

Kafeko atzean,
ERROMERIA:
LUHARTZ
Ondarroako Udala.

• **01:00.**

Musika Plazan,
KATU, DJ JUSEFF
ETA DJ SARGORI.
Ostean, ZUMBA.
Musika Plazako
txosnak.

• **04:00.**

Beikozinatik Musika
Plazara, PANTALOI,
TANGA ETA
KANTZONTZILLO
KARRERA. Musika
Plazako txosnak.

Dantzarte elkarteak •

«Oso garrantzitsua da herriko gazteek kultur emanaldiekin jaietan plaza hartzea»



2004az geroztik dantza emanaldia eskaintzen du Dantzarte elkarteak Andra Mari jaien baitan. Jaietako egunetan batzuetan, jaien aurretik besteetan, baina Itsasaurre betetzen duen emanaldia bihurtu da, herritarrentzat galduezinezko hitzordua. «Gogoratzen dut 2002koa, Uzuri Nietoren eskutik, kandlekin eta, Ramsteinen musikarekin, lurrean, karparik gabe...».

Zer ikusiko da aurten-go Dantzarteren emanaldian?

Hip-hopeko koreografiak ikusiko dira, 9-10 urteko dantzarietatik aurrerako gazteen eskutik.

Zer suposatzen du zuentzat urtero karpa goraino beteta ikusteak?

Ederra da karpa beteta ikustea. Uste dugu finkatuta dagoen kultur emal-

naldia dela. Bere lekua finkatu du programazioan. Oso garrantzitsua da herriko gazteek kultur emanaldiekin jaietan plaza hartzea. Eta horri inguruko jendeak eta orohar herritarrek zelako erantzuna ematen dioten ikustea ere pozgarria da.

Plaza hartzearen garrantzia azpimarratu duzue.

Bai, batez ere gauza birengatik: batetik emakumeek oholtza euren ganatzen ari direlako, eta bestetik geroz eta mutil gehiagok ere parte hartzen duelako emanaldi honetan.

Parekidetasunerako bidean eman beharreko bi urrats garrantzitsu dira emakumeek plaza publikoa hartzea eta mutilak ere euskal dantzak ez diren dantza modernoagoak egiten plazan ikustea.

Zeintzuk egongo dira

oholtzan Andra Mari egunean?

Izena eman duten guztiak egongo dira. Andramarietako saioa ez da izaten urte guztian dantza ikastorduetara joaten ibili direnen emanaldi bat, izena ematen duen edozein herritarrek parte hartu dezake. Urte guztikoa baino «informalagoa» da.

Iaz, lehen aldiz, Andra Mari eguneko gauera mugitu zen emanaldia, jaien aurretik egin beharrean. Zein balorazio egiten duzue?

Egun desberdinetan eskaini izan ditugu saioak, 12an, 13an, behin edo behin 14an eta 16an ere... beti beste ekintza batzuekin ez talkarik egiteko. Aurten berriro ere 15ean egingo dugu, eta uste dugu bai ematen diola Andra Mari eguneko gauari balio erantsi bat herritarrek oholtzan egotea. ●

abuztuak 15, martitzena

Andra Mari Eguna



Egitaraua ↓

• 10:00.

Antiguako santutegian,
MEZA NAGUSIA.

• 10:30.

HERRIKO
TXISTULARIEN
KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• 12:00-14:30.

Itsasurren,
UMEENTZAKO PARKEA.
Ondarroako Udala.

• 12:45.

Itsasurre Plazan,
HERRIARI AURRESKUA.
Ondarroako Udala.

• 13:00.

MUTRIKUKO MUSIKA
BANDAREN KONTZER-
TUA, Itsasurreko karpan.
Ondarroako Udala.

• 17:30.

Frontoian, ESKU
PILOTA PARTIDAK,
Markina-Xemeingo Esku
Pilota Taldearen eskutik:
BENJAMINAK, ALEBI-
NAK, INFANTILAK,
KADETEAK, JUBENILAK,
EMAKUMEZKOAK ELITE
ETA GIZONEZKOAK.
Ondarroako Udala.

• 17:30-20:00.

Itsasurren,
UMEENTZAKO PARKEA.
Ondarroako Udala.

• 19:00.

KALE ANIMAZIOA:
Artelanen ERRALDOIAK
ETA BURUHANDIAK
Dunbots txarangarekin.
Ondarroako Udala.

• 19:00-23:00.

Kafeko atzean,
ERROMERIA: GAUARGI.
Ant: Danak etxea!

• 23:00.

Arrigorri hondartzan,
SU ARTIFIZIALAK
Piroteknia Valecearen es-
kutik. **Mesedez, irakurri
Segurtasun Neurriak
atala (23. orrialdean).**
Ondarroako Udala.

• 23:30.

Itsasurre Plazan,
DANTZA EMANALDIA
Dantzarteren eta
LaSalaren eskutik:
«Female» eta «Lauesku»
ikuskizunak.
Ondarroako Udala.



MUSIKA TALDEAK

Kuadrillen gaia: **MUSIKA TALDEAK**

On ezkio jakin-
go dozue
Andramaixe-
tako Kuadrilla
Eguneko gaixe zein dan
ezta?

Musika taldik.

Holantxeik erabaki
zan uztailan 18xan ein
zan Jai Batzordin, herri-
txarran eskutik 14 pro-
posamen jaso eta gero.
Ez zan erreza ixan gaixe
aukeratzi, egokixak bat
baino gehixa zile ikusi-
ben batzordekidik eta.
Baine azkanin, bozketa
bidez, hauxe erabaki
zan, uste zalako aukera
asko eta errezak emoten
dabazen tematiki dala.

Batzuk gaur eguneko
taldik karakterizako
dotxuez, beste batzuk
mariatxixak, beste
batzuk gaiteruk, beste
batzuk Gatibu, Su Ta
Gar, Gari, Gozategi,
Alaitz eta Maider...

**Mozorrothu. Jantzi eta
urten kalea,
kuadrillan. Kanta eta
dantzán ein. Gai
aproposa dakau aurt-
en horretako eta!
«Kantatzen ez due-
nak zorionik ez du!»**

Baine nahizue adibide
batzuk emoti?

Bikotin nahi bazue
urten ero lagun biren
artin, Iruñe eta Andoni.
Kuadrilla handixe zaze-
la? Txatanuga Futz
Band.

Ero koro bat be anto-
latu zeinke. Eta bixkat
fantaseaten hasitze...
Kiss, Freddie Mercury,
Abba, Tina Turner...

Bueno, gu ez guz idea
gehixa emotea. Emon
zeuk be buelta batzuk
buruai. A! Ta txoi txiki
batek esasku kuadrilla
batzuk euran mozorruaz

batea koreografixan bat
ero playbacken bat ero
preparaten be ba eida-
biz, Elepuntoaz Alde
Zaharrin ero
Plazamusikako txosne-
tako playbackin eitzeko.

Laga lotsak etxin,
Andramaixak urtin
behin diz eta! Mozorrothu
eta sartu paperin, mere-
zi rau te! Edertua pasa-
kou...!!!

Ez geunke kuadrilla
Eguneko gaixai buruzko
idatzi hau amaitxu eske-
rrak emon baik gai des-
bardinak proposatu
daben herritxarrai; 14
gai ixan diz aurten guz-
tire. Ondo funtziona
dabela ikusitze, dato-
rren urtin be udiaz
batea herritxarrai gaixak
proposatzeko aukeri
zabalduko dou, gero Jai
Batzordik proposamen
guztixetatik bakar bat
aukeratzeko. ●

abuztuak 16, eguaztena

Kuadrilla Eguna



• **10:00.**

Alamedan,
MARMITAKO
LEHIAKETA,
Arranondo Kultura
Alkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **10:30.**

HERRIKO
TXISTULARIEN
KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• **12:00-14:30.**

Itsasaurren,
UMEENTZAKO
PARKEA.
Ondarroako Udala.

• **12:30.**

Alde Zaharreen,
BERTSO SAIOA:
AMETS ARZALLUS,
ONINTZA ENBEITA
eta OIHANA
IGUARAN.
Gai-jartzailea: IÑAKI
LERSUNDI
ARRIZBALAGA.
Ondarroako Udala.

• **13:30.**

Zaldupeko zubitik
hasita eta kalerik kale,
KALEJIRA, Bonbere-
nea txarangarekin.
Ondarroako Udala.

• **15:00.**

Kafeko atzean,
KUADRILLEN
BAZKARIA.
(Txartelak salgai
Turismo Bulegoan
abuztuaren 9ra arte).
Ondarroako Udala.

• **17:30-20:00.**

Itsasaurren,
UMEENTZAKO
PARKEA.
Ondarroako Udala.

• **18:00.**

Frontoian,
HERRI KIROLAK
Mutriku Sokatira
Taldearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **18:30-22:30.**

Kafeko atzean,
ERROMERIA: LAIOTZ.
Ant: Danak etxea!

• **19:00-22:00.**

Alde Zaharreen,
INDARKERIA
MATXISTARIK
GABEKO GUNEA.
Ondarroako
Emakumeen Udal
Berdintasun
Kontseilua.

• **19:30.**

Alde Zaharreen,
KALE DISKOTEKA
ELEPUNTO DJaren
eskutik.
Ondarroako Udala.

• **23:00.**

Itsasaurre Plazan,
KONTZERTUA:
MERINA GRIS ETA
J. MARTINA.
Ondarroako Udala.

Ondoren,

Musika Plazan,
PLAY-BACK
eta JOLASAK.
Musika Plazako
txosnak.



Mikel Agirre Unamuno •

Herri kirolaria eta euskal pentatloilaria

«Ondarroako frontoia plaza berezia da niretzat. Urteko egun seinalatua da Kuadrilla Eguneako erakustaldia»

Zer suposatzen du zuretzat herrian aritzeak?

Niretzako plaza kuttunena da, bereziena. Denok daukagu plaza bereziren bat, eta nirea Ondarroako frontoia da. Estimazio ikaragarria diot eta urteko egun seinalatua izaten da niretzat, daukadan onena emateko eguna.

Pentatloian ere ikusi ziatugu aurten. Zelako esperientzia da?

Pentatloia oso berezia da. Herri kirol ikusgarria da, bai kirolarientzat eta baita ikusleentzat ere.

Bost kirol egin behar dira eta ez da erraza bostetan lehiakorra izatea, eta hor ikusten da batek ematen dizuna besteak kendu diezazukela: nekea, norbere trebetasuna, lehiakideak...

Kuadrilla Egunean frontoira doanak zer ikusiko du?

Mutriku Sokatira Taldearen ohiko erakustaldia izango da, baina urtero modura zerbait berezia sartuko dugu: pentaloitxi bat egingo dugu bi lagunek, eta ni neu izango naiz bat.

Nola hasi zinen herri kiroletan?

Arraunetik egin nuen jauzi Mutriku Sokatira Taldera. Osaba eta koinatua ere probetan eta herri kiroletan aritzen ziren, eta hor hasi zen dena. Mutriku Sokatira Taldeak ate asko ireki zizkidan, bai sokatiran eta bai gainerako herri kiroletan aritzeko ere. Urte batzuen ondoren herri kiroletara bideratzea erabaki nuen sokatirara beharrean, bakar-kako lanera. 5-6 urte daramatzat.

Zein helburu dituzu etorkizunean?

Helburu garrantzitsuenari argi daukat: gozatzea eta ondo pasatzea. Horrez gain, iraileko pentatloia ere bada helburu bat, baina lan kontuengatik prestaketa onik egin ezinda nabil, Alemanian nago eta. Eskerrak lantalde ona daukadala atzean eta asko laguntzen didatela. Beste helburua abenduko 2.mailako aizkora txapelketa da (Ondarroan lortu zuen 3.mailatik bigarrenako igoera). Azkenik, Bilboko santomasetan, Bizkaiko 1.mailako Trontza Txapelketan emaitza ona lortzea nahiko nuke nire bidelagun Andoni Zubiaurre mutrikuarrarekin. ●



abuztuak 17, eguna

Arrantzale Eguna



• **10:30.** Kalerik kale,
HERRIKO TXISTULA-
RIEN KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• **12:00.** Kalez kale,
ERRALDOIAK
ARTELANen eskutik,
Hala Gera dultzainero-
ek lagunduta.
Ondarroako Udala.

• **13:00.** Kalez kale,
ATAKO BANDAN
DANTZA SAIOAK
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **17:30.** Kofradia
Zaharraren aurrean
eta Itsasaurren,
BENTAZAHARREKO
NESKA-MUTIKO
ALAIK.
Ondarroako Udala.

• **18:00.**
Zubi Zaharraren
aurrean, KUKAÑA.
Saria: 300€
irabazlearentzat.
Ondarroako Udala.

• **Ondoren,** Zubi
Zaharretik dindilizka,
OIHAL ETA TRAPEZIO
IKUSKIZUNA Artaka
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **20:00.**
Kafeko atzean,
EUSKAL ERROMERIA
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.
Ondoren, ELEPUNTO
DJaren SAIOA.
Ondarroako Udala.

• **23:20.**
Zubi Zaharretik eta
kalerik kale,
KORTXELEKO
MAMUEN KALEJIRA
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **23:45.** Musika
Plazan, KORTXELEKO
MAMUEN IGOERA
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **Ondoren,**
Musika Plazatik
irtenda,
ZEZENSUZKOA.
Mesedez, irakurri
Segurtasun Neurriak
(23. orrialdean).
Ondarroako Udala.




• **00:30.**
Itsasaurre Plazan,
ERROMERIA
OXABIrekin.
Ondarroako Udala.

• **00:30.**
Musika Plazan,
KONTZERTUAK:
TRIBADE eta KARAIO.
Musika Plazako
txosnak.

↓ 2022ko andramaixetako argazkixak







ESKERRIK ASKO liburuxka hau kaleratzen lagundu diguzuen guztioi,
baita Hitzza urte guztian kalean egotea posible egiten duzuen
harpidedun, babesle eta laguntzaile guztioi!

↓ Andramaixan atzetik...

abuztuak 26, zapateria

• **18:15.** Badian, **TRAINE-RUEN ESTROPADAK TKE-EUSKO LABEL LIGA:** XXXIX. Ondarroako Bandera - Cikautxo Sari Nagusia. Ant.: Ondarroa Arraun Elkarte. Lag.: Ondarroako Udala.



irailak 23, zapateria

• **12:00.** Gaztetxetik, **TONTORRAMENDIKO X. IGOERI.** Izen-emotea ordubete aurretik Gaztetxean. Info+: *lasterketak.eus*. Ant.: Aurrera Mendi taldea eta OGA.

irailak 9, zapateria

• **NON LEAGUE DAY:** 3.mailako taldearen **LIGA-KO I. JARDUNALDIA.** Athletic Clubaren lagun-tzarekin. Ant.: Aurrera K.E.

irailak 16, zapateria

• **YAALAH ELKARTEAREN JAIA** Musika Plazan eta frontoian. Ant.: Yaalah.

• **17:00.** Itsasaurre zubitik, **ONDARRU-LEKITTO KOSTALDEKO LASTERKETA.** Izen-emotea *herrikrosa.eus*-en. Dorsalak egun berean Itsasaurren 15:30etik 16:45era. Sari banaketa amaitutakoan, 19:30ean, atletentzako autobusa egongo da Lekeitiotik Ondarroara. Ant.: Tximista AT. Lagunt.: Ondarroako Udala.

irailak 30, zapateria

• **14:00.** Musika Plazatik urtenda, **UMEEN ARRANTZA LEHIAKETA (4 urte-tik 14ra)** Zubi Barritik Barrapuntaraino. **Izen-emotea:** aurretik ikastetxe-etan eta bertan egunean plazan. **Baldintzak:** Amuagaz arrantzatu behar da, lazunak ez dute balio eta arrainak 10 zentimetro-tik gorakoak izan behar dira. Ant.: Arrigorri Itsas Arrantza Elkarte.



6. Marabilli

irailak 29 - urriak 8:

Marabilli ARGAZKI ERAKUSKETA: Yolanda Eizagirre, Alamedako Udal Erakusketa Aretoan.

urriak 6, barikua:

• **19:30.** *Marabilli Parade*, Zubi Zaharretik Beikoizinira. Ondarroa Arraun Elkarte, Kresala Musika Banda eta Manuel Elu.
• **19:45.** Beikoizinin, pelikula mozketa eta **JAIALDI HASIERA.**
• **20:00.** *Master class*-a, Fermin Muguruza eta Arantxa Santestebanegaz.
• **22:00.** *10 minutu:* Amets

Arzallus, Maddalen Arzallus, Asier Altuna, Iker Sanchez, Irati Bilbao eta Ainhoa Moiua.

• **23:15.** III. Marabilli Sormen Saria.

• **00:00.** Moonshine Wagon, Malandro eta DJ Elepunto, Portuko Ranpan.

urriak 7, zapateria

• **Egun osoan.** Artisau azoka

Alamedan.

• **11:00.** Ttek elektrotxaranga kale-rik kale.

• **12:00.** *Zergatik idatzi?* literatura hitzaldia Joseba Sarrionandia Mielanjel Elustondogaz, Kofradia Zaharrean. **Aurretik,** Unanue Musika Eskolako ikasleak.

• **12:00.** *Ezinezko fuola*, Zaldupen.

• **12:00.** *Boga eta zixe*, errekan.

• **17:30.** Ttek elektrotxaranga, Portutik Goiko Zinera.

• **18:00.** Zinema gala: *20.000 erle espezie*, Esti Urresolagaz, Goiko Zinan. **Aurretik,** Unanue Musika Eskolako ikasleen doinuak.

• **18:00.** Ttek elektrotxaranga Goiko Zinetik Zubi Barrira.

• **19:00.** *Made in Ondarru.*

Nanoantzerkiak+Kontzertuak, herriko artistekin.

• **20:30.** Tapia eta Leturia eta Emepebost, Musika Plazan.

• **22:00.** Viva Belgrado eta Belako, Beikoizinin.

• **00:00.** **JAIALDI AMAIERA,** Gaztetxean.

GUZTIOK ONDARRU

(Augustin Zubikarai/ Victor Ureña, 1960)

**Guztiok Ondarru
goratu daigun,
izan daiten harru,
lihor eta itsasun.
Gabiltza beti gu,
maite ta alaitsu,
kaletan oihu,
uretan orru,
beti goratzen Ondarru.**

Haixe berdietan
edo ipar baltzetan
begira Antiguari
gure izarrari.
Herrira etortzean
kale ta kantoietan
zorutzen pozez,
umore onez,
kresal usainez.

**Guztiok Ondarru
goratu daigun,
izan daiten harru,
lihor eta itsasun.
Gabiltza beti gu,
maite ta alaitsu,
kaletan oihu,
uretan orru,
beti goratzen Ondarru.**

Ur ertzean sortu
ta ur ertzean hil,
eta bitartean
kantuz dantzan,
orruz txanpan,
Ondarru maitale,
Ondarru kutun,
hala beti ekin daigun.

Itsasoan
nahi lihorrian
gure ametsak
beti Ondarrun,
berau lakorik ez dugu
guk iñun ezin iñun.

Itsasoan
nahi lihorrian
ezin ahaztu
gure Ondarru.
Kantauriko
pitxi harru
gure ONDARRU!